



NOTA DE PRENSA DEL TVCP DEL INFORME DE FISCALIZACION DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA 2005 Y 2006

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ha realizado el informe de fiscalización del Ayuntamiento de Tolosa correspondiente a los ejercicios 2005 y 2006. La aprobación ha sido acordada por unanimidad de los miembros del Pleno del TVCP.

Udalaren, Toki Erakunde Autonomoaren eta bere Sozietate Publikoen 2005 eta 2006ko ekitaldietako Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriarri dagokionez, HKEEk adierazi du Iurreamendi Egoitzetxearen 11 langile eta Errentegibel, SAko bat inongo prozedurarik erabili gabe kontratatu dituztela, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.

Adminitrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak adierazten du Udalak eskola eraikin bat zaharberritzeko lanak publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez esleitu zituela, kopuruaren arabera, lehiaketa bitartez egin behar zatekeenean. Berebat, Udalak 1,5 milioi euroko bi obra esleitu ditu publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe.

Atal honetan bertan, Udalak eta Iurreamendi Egoitzak gastu zuzenak egin dituzte inongo prozedurarik erabili gabe 2005 eta 2006ko ekitaldietan, guztira 631 eta 435 mila euroko zenbatekoarekin, hurrenez hurren. Honez gainera, Udalak bi urte hauetan guztira 2,4 milioi euroko zenbatekoarekin hainbat obra esleitu ditu behar hainbateko krediturik izan gabe.

Udalak ez ditu ez Europako Batasunaren Egunkari Ofizialean, ez Estatuko Aldizkari Ofizialean hainbat udal zentro garbitzeko zerbitzuen lizitazioak eta Usabal kiroldegia



obra-erredakzio eta zuzendaritzak argitaratu, kopuruaren arabera nahitaez argitaratu behar zatekeelarik bi komunikabideetan.

Kontu Orokorrei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du aurkezpen eta edukiari dagokionez, hainbat salbuespen egin dituela, besteak beste, Udalak ez duela ebazteko dauden auzi eta erreklamazioek izan dezaketen eraginaren balorazioa eta Iurreamendi Egoitzari dagokiona, bestea, ibilgetuko gaien ondasun zerrenda gaurkoturik ez duelako eta Udalak bere sozietateetarik biri egindako lagapenen kontabilizazioagatik. Honezaz gain, HKEEK bi ekitaldietan Udalaren, Tolosa Lantzen, SAREN eta Tolargi, SLren kontabilitateari egindako hainbat doiketa erakutsi ditu.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez esaten da Udalak 2005 eta 2006ko ekitaldietako inbertsio kopuru parekoari eutsi nahi badio, kanpoko finantzaketa iturrietara jo beharko duela.